

**Graduado o Graduada en Historia y Patrimonio *Historia
eta Ondarean Graduatua***

**Trabajo Fin de Grado
*Gradu Bukarako Lana***

ITOIZKO URTEGIAREN GATAZKAREN DISKURTSO ANALISIA

Ikaslea: Anne Biurrun Lorda

Tutor/Tutorea: Fernando Mendiola Gonzalo

Departamento/Saila: Giza eta Hezkuntza Zientziak

Campo/Arloa: Historia Garaikidea

05, 2023

Resumen:

Itoiz se considera una de las principales infraestructuras hidráulicas de Navarra y su construcción generó diversas opiniones en relación con el proyecto. Como respuesta a este proyecto de construcción, surgió un movimiento opositor en los valles, conocido como la Coordinadora de Itoiz, que se opuso a la inundación del embalse. Paralelamente, se formó Solidarios con Itoiz como un grupo vecinal que defendía el entorno rural y se oponía al enfoque desarrollista de aquel momento. El embalse formaba parte de un proyecto destinado a transformar la agricultura navarra mediante la conversión de tierras de secano en regadío. Esta situación dio lugar a un conflicto entre los poderes políticos y sociales. El presente trabajo se enfoca en el análisis de los diferentes discursos que surgieron a raíz de este conflicto socioambiental.

Palabras clave: Embalse; conflicto socioambiental; modelos de agricultura; ecologismo.

Abstract:

Itoiz is one of the major hydraulic infrastructures in Navarra, and its construction sparked different opinions regarding the project. As a result of the construction project, a movement opposing the flooding of the Itoiz reservoir emerged in the valleys, known as the *Coordinadora de Itoiz*. Simultaneously, *Solidarios con Itoiz* emerged as a grassroots group that defended the rural world and confronted the modernist development of the time. The reservoir was part of a project aimed at transforming Navarra's agriculture by converting drylands into irrigated lands. This project led to a confrontation between political and social powers. This study focuses on analyzing the different discourses that arose from this socio-environmental conflict.

Keywords: Dam; socio-environmental conflict; agriculture norm; environmentalism.

Laburpena:

Itoiz Nafarroako azpiegitura hidrauliko handietako bat da, haren eraikuntzak iritzi desberdinak izan zituen proiektuari buruz. Eraikuntza-proiektuaren ondorioz, mugimendu bat sortu zen ibarretan, Itoizko urtegia oposizio gisa hartuko zuena, Itoizko Koordinakundea. Talde horretatik Itoizekiko Solidarioak taldea sortu zen paraleloki. Herri bizimodua defendatu eta garai hartako garapen modernistari aurre egin zioten auzo talde bat izan zen hasiera-hasieratik. Urtegia Nafarroako nekazaritza eraldatzeko proiektu baten parte zen, lehorreko lurak ureztatze aldatzean oinarritua. Proiektu horretatik abiatuta, botere politiko eta sozialen arteko liskarra sortu zen. Lan honek gizarte eta ingurumen gatazka honen ondorioz sortu ziren diskurtsoak aztertzen ditu.

Hitz-gakoak: urtegia; gatazka sozioambientala; nekazaritza ereduak; ekologismoa.

HASIERA	4
1. NAFARROAKO GOBERNUAREN AURREPROIEKTUA: NAFARROAKO UBIDEA ETA ITOIZKO URTEGIA	5
1.1. Urtegia eta ubidea Nafarroaren irtenbide bakarra bezala	6
1.2. Nafarroako ubidearen eraikitze prozesua	8
2. URTEGIAREN AURKAKO MUGIMENDUAREN HASIERA	9
2.1. Koordinakundeak bultzatutako analisi teknikoak	9
2.2. Koordinakundearen auzi legala	15
2.3. Mugimendu ekologistaren muina	19
2.4. Itoizko Koordinakundea eta Itoizko solidarioak: auzo mugimenduaren bilakaera	23
2.5. Erresistentzia formak: mugimendua zabaltzen	25
3. IRTIZI PUBLIKOAREN IKA-MIKAK: DISKURTSO BILAKAERA	33
3.1. UAGN eta EHNE sindikatuen arteko eztabaidak	34
3.2. Ekosabotajearen kriminalizazioa: Itoizko zortziak	37
4. ONDORIOAK: ITOIZ ERAIKIA BAINA OINARRIAK IPINIAK	40
BIBLIOGRAFIA	41
PRENTSA ITURRIAK	42
ERANSKINAK	43
Taulak	43
Irudiak	44

HASIERA

La presa de Itoiz se trata de una de las infraestructuras hídricas más grandes de Navarra. No es únicamente un proyecto hidráulico de finales del siglo XX y principios del XXI. Itoiz fue una obra controvertida, de debate social, político y legal. Aunque se haya construido y acabase inundando los valles de Longuida y Arce el movimiento que surgió a partir de ello marcó un antes y un después en las disputas socioambientales, tanto de Navarra como del Estado Español. Se trató de una disputa que llegó a superar las mugas navarras. Se presentó como el mal administrativo en el Tribunal Supremo. Y fue una causa apoyada por diversos movimientos locales e internacionales, como *Greenpeace*.

Itoiz es el conflicto donde diferentes intereses se unieron: la defensa de las tradiciones rurales, de la familia y las formas de vida, la defensa de la justicia ambiental y de la riqueza natural de Navarra. Itoiz tuvo diferentes líneas, pero todas se unían por una causa: detener la construcción de la presa.

Este trabajo pretende profundizar en el conflicto socioambiental surgido en estos años de construcción del embalse de Itoiz, haciendo un análisis de las diferentes posiciones que surgieron a partir del proyecto. Se realiza un estudio tanto desde aquellos que estuvieron a favor del proyecto, exponiendo sus razones que justificarían la obra desde el Gobierno de Navarra del momento hasta la opinión pública. Al igual que se analizan los discursos creados por la oposición tanto política, legal como por la social.

Itoiz se trata de un conflicto socioambiental que establece las bases para movimientos posteriores. Como es el caso actual de la desertificación de Doñana, que debido al Cambio Climático y a la sobreexplotación de sus aguas subterráneas se ha visto en riesgo. Las Reservas Naturales del parque están desapareciendo debido a la gran degradación sufrida. Este trabajo pretende demostrar, por otra parte, que los problemas medioambientales se tratan de riesgos que afectan a todos. Se pretende demostrar que el patrimonio natural es algo de todos y algo que preservar a partir del caso de Itoiz. Además, se hace el análisis de aquellos antidesarrollistas, que frente a las modernidades del mundo industrial se enfrentaron a este y defendieron la vida rural como forma de vida.

1. NAFARROAKO GOBERNUAREN AURREPROIEKTUA: Nafarroako ubidea eta Itoizko urtegia

Itoizko presa eta Nafarroako ubidea Gobernuak lehorreko eremuen zati bat soro ureztatuak eremu bihurtzeko duen planaren zati izan dira, bi zatitan banatu zen: lehenengo erdia 80ko hamarkadan hasitako prozesua, bigarrena azken urte hauetan burutuko dena. Kanala itoizko presan hasten da, Irati eta Urrobiko ibaiko ura gidatzen du foru komunitatean zehar lehorreko lurretan zeuden Nafarroako erdialdeko eta hegoaldeko ur beharrak asetzeko. Inguruko nekazaritza mota aldatu nahi zen, 69.160 hektareetako produkzio formak eraldatuz. Bestalde, proiektuak Nafarroako biztanleen %70 urez hornituko luke, batez ere erdiguneko hiri eta industria hornidura eremuak¹.

Proiektua Foru Komunitatearen beharretan oinarritutako plangintza hidrologikoko prozesu baten parte izan zen. Nafarroako nekazaritzan aztertutako egiturazko akatsak gainditzeko asmoz garatu zen: lurrak uztea, belaunaldien arteko errelebo eza, lurzatien tamainaren murrizketa, biztanleria aktiboaren zahartzea, etab. Hau da, Nafarroa, nekazaritzari dagokionez atzeraka zebilen², Gobernuaren ustez lehorreko lurren ondorioz³.

70ko hamarkadan nekazaritza Nafarroan lan-sektore nagusia zen, 1955an nazional mailan bosgarren postua hartzen zuen nekazal produktibitatean. Baina 90. Hamarkadaren bukaeran sektorearen produktibitatea lurra jo zuen, kasu hau Espainia maila guztian gertatu zen. Nekazal sektorea garrantzia galdu zuen, batez ere zerbitzu eta industria sektoreen aurrean (ikusi 1.Taula). Nafarroako nekazaritza sektore ezberdinetan oinarritzen zen, aleen produkzioa nagusi zen barazkiekin batera. Baina denborarekin nagusitu egin da abeltzaintza, batez ere iparraldean (Uriel & Maudos, 1998, or. 22).

Nekazaritzaren murrizketa baita lurren dimentsioarekin lotuta egon zen, nekazaritzarako azalera erabilgarriaren indizeak (NAE) azaltzen du Nafarroako ekoizpen-lurren azalera nazionalaren azpitik aurkitzen zela (Uriel & Maudos, 1998, or. 36). Espainiaren kasu orokorra 18 hektareatan aurkitzen da, Nafarroa berriz, 15,5ko hektareatan. Gainera lur gehienak esplotazio txikikoak ziren, hala ere, 80ko datuak erakusten dute lur eremuen handitzea eman zela, baina hau hauen

¹ *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.3.

² *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.14.

³ Lehorreko lurrak klimaren mende daude, berriz, soro ureztatuak aurrekoekin alderatuz are produktiboagoak dira.

kapitalizazioarekin lotuta dago (Uriel & Maudos, 1998, or. 181). Hau da, abandonatutako lur eremuak nekazari enpresa handien esku geratu ziren askok, %34ko kapitalizazio prozesua eman zen Nafarroan maila nazionalaren gainekoa izanda (Uriel & Maudos, 1998, or. 183)(Ikusi 2.Taula).

Produktibitatearen igoera lortzeko izan zen gobernuaren helburua, hau lortzeko Nafarroako Ubidea bilakatu zen bide. Nekazaritzaren garapen tasa askoz baxuagoa zen beste sektoreekin alderatuz, nahiz eta Nafarroa nekazaritzaren aldetik produktiboak izateko aukerak izan. Gobernuak komunitatearen lur eremuaren abantailaz baliatzeko hegoaldeko lurren produkzio formak aldatu zituen, ureztatuak bilakatuz. Bestetik, lehorreko lurretan lan egiten zuten nekazarien bizitza moduak probestu nahian⁴ lurraren mende egon ez daitezzen. Gobernuaren omenez, hegoaldeko biztanleriaren egoera hobetzeko bide zen ubidea: landatar exodoarekin amaitzea, azpienpleguaren beharra esku-lanaren faltaren aurrean murriztea, lehorteko lurraren produktibitate baxua gainditzeko, etab. Hau da, Nafarroako Kanala erdialdeko eta hegoaldeko eremuen garatzea bilatuko zuen, nekazaritza mundua indartuz eta bertako lurren produktibitatea bilatuz⁵.

1.1. Urtegia eta ubidea Nafarroaren irtenbide bakarra bezala

Landatar munduko garapenerako bilakatuko zen beharrezko tresna lurren bilakaera lehorretik ureztatuera. Lurren analisia egin zen, produktibitate gehien izango zituztenak aukeratuz hauek ureztatuak bilakatuko ziren. Batez ere, despokatze eta azpienplegura joera zuten lurak aukeratu ziren.

Rene Steichen Nekazaritza komisarioaren azterketa baten arabera, landa-eremuetako biztanleriaren galera desbitalizazio sozioekonomikoaren ondorioz gertatu ziren, nekazaritza bertan behera uztearen ondorioz, eta horrek biztanleriaren elementu dinamikoen emigrazioa eragin zuen⁶. Azterketa hau azpimarratzen zuen egoera gainditzeko beharrezkoa zirela lur eremuen bilakaera, batez ere hauen produktibitatea bultzatzeko eta landa-eremuetako gizarte ehunaren garapena zuzentzeko. Bestetik, ubidearen eraikitzearekin 1993an “*Nafarroako Ubidearen, NPBren eta GATTren aurrean nagusi diren eremu ureztagarrien egoera eta etorkizuna*” aurkeztutako txostenean Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Departamentuak azaltzen zuen egindako simulazio batzuetan oinarrituta

⁴ *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.4.

⁵ *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.6.

⁶ *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.6.

barazkien ekoizpena %126 eta %167 bitartean handituko lukeela nekazaritzako industriarako, eta %138 bazkatokietarako⁷, hau hipotetiko zen. Espero ziren zereal lurren produktibitatea handitzea ureztatze lurren areagotzearekin, batez ere abandonatutako lehor lurren berreskurapena etorkizuneko eremu ureztagarriaren %92,8a hartzen zuten. Eskualdeko nekazariari lurren aktiboak lortuko zituzten, lehen gutxi ordainduak eta gaizki bananduak zirenak, eta ureztatze eremuaren garapenean parte hartzeko aukera emango zitzaizkien bere errenta hobetzeko aukerarekin, gobernuaren ustez %150 arte garatuko ziren⁸.

“Proiektuaren kontabilitatea- Nafarroako ubidea eta haren eremu ureztatua- Nekazaritza Politika Bateratua, eta haren erreforma partikularrekin” txostenean azaltzen zen nola NP Bren⁹ politikari atxikitu behar zela plana, batez ere nekazariaren papera ingurumenaren kudeatzaile gisa zuen zereginari eusteko. Nafarroako Ubideak Europa Batasunaren zuzentzararen politikak aplikatu behar zituen, bazterreko lurren zati bat produkzio txikitari bideratu behar zituen, ingurumen baldintzak hobetzeko eta estepako hegaztien habitata sortu eta kontserbatzeko¹⁰.

Zerealen ekoizpena produktibitate handiko eremuak bihurtzea bilakatu zen funtsezko helburua Nafarroako nekazaritzarentzat. Lehorreko lurren defizit hidrikoa gainditu nahi zen, urezta lurren bidez, errentagarritasun ekonomiko onargarria lortzeko besteak beste. Bilatuko zen lehorreko lurren produktibitatea bultzatzea, errentagarritasun ekonomikoaren mugan zeudenak 2,7 tonualda hektareekiko produzitzen zuten, minimoa enpresa onura ebaluatzeko¹¹. 1994an nekazaritzako elikagaien balantza komertzialaren saldo negatiboa ematen zen, urtez urte handitu zena¹². *“Nafarroako nekazaritza sektorearen makromagnitudeak”* txostenean azpimarratzen zen nola Nafarroa nekazaritza produktuak inportatzen zituen erkidegoa zen, bai beste autonomia erkidego batzuetakoak, bai atzerrikoak. Orduan, horrelako lehengai defizita gainditzeko beharrezkoa izango litzake Nafarroako ubidearen garapena.

⁷ *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.6.

⁸ *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.7.

⁹ Nekazaritza Politika Bateratua

¹⁰ *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.7.

¹¹ *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.10.

¹² *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.12.

Gobernuaren arabera, plana garatuko ez balitz Nafarroako nekazaritzako lurrak abandonatuko liriateke, landa eremuko herriak hustuko liriateke, gizarte sarea galduko zen eta Nafarroako landa bizi desagertuko litzateke. Bestalde, ekonomiaren aldetik zorpetzea gertatuko litzateke, nekazaritzaren sektorea garatu ez delako¹³.

1.2.Nafarroako ubidearen eraikitze prozesua

Ubidearen eraiketa ez zen gai berririk izan, 1928an Ebroko Konfederazio Hidrografikoak (EKH) abian jarri behar zuen Bardeenetako kanala baina azkenean baztertu zen. 1986an plana berri ere martxan jarri zuen, baina Irati ibaitik hasiko zen Nafarroako ubidea. *“Nafarroako eremu ureztatuak eta hauen ur beharrak”* argitaratutako txostenak 160.000 Ha lur kalkulatu zituen bihurtu behar zirela lehorretik ureztatuetara. Bertan baita agertzen ziren egindako kalkuluak ur-iturri nagusiaren hornidura non egin behar zen erabakitzeko, bi aukera eman ziren; kanala Irati eta Aragoi ibaietako presetan hastea, bestetik bakarrik Irati ibaia hartzea. Azkenean ur beharrak Iratiko ibaia Itoizko presa bitartez asetu zituen¹⁴.

Egindako ingurumen inpaktu ikerketak adierazi zuten kanalaren planak ezin zutela 57.700 lur hektarea gordin gainditu, nahiz eta hasierako ideiak 10.000 hektarea gehiago ezarri nahi eta CANASAK 59.000 Hektarea bilakatu nahi. Hasiera batean gobernuaren ustez plana ingurumena errespetatu behar zuen, batez ere Oroz-Betelu eta Nagoreko ingurumena muga naturala bezala ezarri ziren hauen garrantzi naturala zela eta. Baina 93ko, 94ko txostenak eta Itoizko herrian sortutako mugimenduak hau salatu zuten, ez baitzen defendatu behar zena defendatzen (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 102).

Hortaz, Nafarroako ubidea Itoizko presan hasi behar zen eta Ablitasko adarretan, Lor urmaelean amaitu. Guztira 177km luzerakoa izan behar zen eta honen bidean 4 urmael artifizial eraikiko ziren ubidearen presio eta ur beharrak neurtzeko. Kanala Aoizko eremuaren muga zeharkatzen du Iruñeko arroara heltzeko eta honi urez hornitzeko, Alaizko mendilerrotik jarraitzen du hegoaldera zuzentzeko. Bidean Nafarroako erdi ekialdea, Uxue eta Alaiz eremuak, zeharkatzen ditu, Aragoiko ibaiaren lurrik pasa ondoren eta Bardenak Erriberarantz bideratu beharko zen Lor urmaelean amaituz¹⁵.

¹³ *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.14.

¹⁴ *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.13.

¹⁵ *Canal de Navarra: proyecto del canal.* (2023 maiatzak 6). Berreskuratua: <https://obraspublicas.navarra.es/es/aerofer/departamento/canalnavarra>

Baina kanalaren eraikuntza bi fasetan burutu zen, gaur egun bakarrik lehenengoa amaitutzat eman da eta bigarrena 2023an hasiko da (navarra.es, 2023). Lehenkoa Itoiztik Aragoiko ibaia arte eta bigarrena hemendik Ablitas arte, Erriberako beharrak asetzeko. Gaur egun guztiz amaitu dira lehen faseko eraikuntzak, 22.363 hektarea eraldatuz¹⁶ eta Iruñeko arroa, Mairaga eta Urroz urez hornitzen ditu. Bigarren etapak 21.522 hektarea ureztatuak ezarri nahiko ditu eta Erriberako hirigune ezberdinen ur beharrak hobetu 70 kilometroko kanalaren eraiketaren bitartez, hau Pitillasko ubidetik jarraituko zuen¹⁷.

2. URTEGIAREN AURKAKO MUGIMENDUAREN HASIERA

2.1. Koordinakundeak bultzatutako analisi teknikoak

1993ko (Alcalde Díaz de Cerio, 1993) eta 1994ko maiatzean (Valle de Lersundi, 1994), Itoizko ingurumenean eragindako inpaktuei buruzko txostenak argitaratu ziren, eta hainbat profesionalak egiturak ingurumenean dituen arriskuak eta eraginak aztertu zituzten. Txostenaren egileei eraginaren aurreikuspena eta balorazioa eskatu zitzaizkien gaiaren larritasuna ulertzeko. Lanean zehar, espezie, komunitate eta ekosistemetan ondorio larriak eta negatiboak dituzten faktoreetan sartzen dira egoeraren larritasuna azaltzeko. Lan honek ingurumenearen aberastasuna, natur erresebak eta ukituko lirakeen natur guneak balioesten ditu besteak beste (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 6). Kontzientzia soziala pizteko 93ko dokumentuak berebiziko garrantzia izan zuen, eta mugimenduaren alde agertu baitziren Espainiako Ornitologiako Elkarte eta Doñanako Estazio Biologikoa, erakunde horiek garrantzitsuak ziren ingurumenaren aldetik Espainian (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 144).

Itoizko urtegiak “trantsizio biogeografikoan” kokatutako eremuak okupatuko zituen, inguruko arroiletan dauden landare- eta ekologia-aberastasun handieneko eremuak hartuko lituzke urtegiak. Zintzurretan babesturik aurkitzen diren landare eta animalia ezberdinak arriskuan jarriko lituzke. Bestetik, Ibarak (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 24) 93ko txostenak azaltzen duen bezala berez erriberako balio ekologiko eta paisajistiko handiko landa eremu, belardi eta heskaiak ureztaketa eragindako ekoizpen eta lur produkzio aldaketek larriki eragingo zukeen formazio natural hauetan. Erriberan inguruko ezaugarri ekologiko eta natural gehienak biltzen ditu, ekosistemaren egonkortasun biologikoak ahalbidetzen ditu besteak beste, paisaia aberasten duten fauna eta floraren ezberdin eta garrantzitsuen babeslekua bilakatuz. Urtegi eta ubidearen sorrera hauen ekosistema larriki kaltetuko zuen. Hortaz, Itoizko urtegiak ez zuen bakarrik bere inguruko balore ekologikoan aldaketak eta galerak

¹⁶ Ideia originaletik bakarrik %37,9 lortu da. Hau da, Erriberan 36.637 h bihurtu beharko ziren.

¹⁷ *Canal de Navarra: proyecto del canal*. (2023 maiatzak 6). Berreskuratua: <https://obraspublicas.navarra.es/es/aerofer/departamento/canalnavarra>

sorraziko, Erriberako ekosisteman eragingo zuen gogor alderantzikagarri diren egoera bat emanen zen guztiz (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 25).

Itoitzek sortuko zituen egoera berriak emariaren erregimena guztiz aldatuko zuen, ohiko urgoraldiak kaltetuz %79ra murriztuko lirateke (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 24). Gainera, presak sedimentuak atxikitzen baditu hauek galtzen dira ibaira heldu gabe, modu naturalean erregulatu gabe. Beraz, emariaren morfologian aldaketa erabatekoa gertatuko litzateke, gai hau ez zen kontuan hartu urtegiaren eraginaren aurretiazko azterlanean (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 26). Baita IIAk (Ingurumen Inpaktuaren Azterketa) generiko gisa sailkatutako zuhaixka-formazio asko errealtatean biodibertsitatea kontserbatzea ahalbidetzen zituzten formazioak ziren. Beraz, Itoizko aurreproiektuak egindako azterlan askok ez zuten aztertzen egitura batzuen garrantzi naturala (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 27).

Itoizko urtegiak hasieratik justifikatu zen ureztalurren iturri bezala. Baina helburuak aldatu egin ziren denborarekin, hainbat gizarte-sektorek kritikatzeko zutelako helburuak; esate baterako, Itoizko Koordinakundeak. Azkenean urtegiak Iruñerriko ur iturri gisa aurkeztu zen. Iruñerrian Nafarroako biztanleriaren erdia baino gehiago bizi dira, 1993an biztanleriaren kontsumo gordina 38,9 Hm³-koa zen baina kontsumoa azken urteotan guztiz gora egin du batez ere biztanleria igoera eta lehorte garaien ondorioz. Kontsumo hau jarraituz gero Iruñerria el lituzke arazorik izan beharko ur kontsumoarekin (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 106).

1990eko ekainean, EKHk¹⁸ erabat ukatu zuen eskualdeko mankomunitateak itoizko ura kontsumo gisa erabiltzeko egindako eskaera. Argumentuaren arabera, Iruñeak lehen mailako hirigune batean onartutako gehieneko kopurua baino 3 eta lau aldiz handiagoa izango luke; gainera, beste iturri osagarri batzuk ere bazituen, hala nola Arteta edo Eugui. Hala ere, EKHko presidente berriak, Antonio Aragonek, azkenean hiriburuari eman zion ur-baliabide hori (Valle de Lersundi, 1994, or. 6).

Iruñeari buruzko datuak sendoak dira, hiriburua ez da behar adina hazi Gobernuak hasieran egin zuen aurreikuspenak iragarki zuten bezala. Eskualdeko kontsumoak 25 urteko epean % 8,2tik % 81era igotzea espero zen 2015rako (Valle de Lersundi, 1994, or. 3). Baina ikerketa sozialek ez dute inoiz adierazi hazkunde hori gertatuko zenik, batez ere jaiotza-tasa eskualde osoan zehar moteldu denean¹⁹. Mankomunitateak, Itoizko lanak justifikatuko zituen arrazoi berri baten bila, Tiebasetik ura eramatea

¹⁸ Ebroko konfederazio hidrografikoa

¹⁹ *Indicadores de Natalidad*. (2023 maiatzak 8). Berreskuratua: <https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=30664#latabs-grafico>

merkeago ikusi zuen Euguitik baino. Baina kalkulu horietan ez zituzten kontuan hartzen Nafarroako Ubidearen eta urtegiaren kostuak, erraz gaindituko zirenak (Valle de Lersundi, 1994, or. 4).

Antonio Aragónek 1993an azaltzen zuen Nafarroaren ur beharra 106 Hm³-koa izango zela, azken urteotan biztanlearekiko kontsumoa behera egin du egunero 330 litroetatik 225 litro izatera (Salvo, 2020) azpiegituren berrikuntzei esker. Erriberako uren kalitateari dagokionez, itotzearen aurretik beste hainbeste proiektu proposatu ziren, hala nola El Valeko urtegitik edo Ferialeko urtegitik ura ekartzea. Moncayoko Mankomunitateak ere ez zuen arrazoirik ikusten Itoizko ura ekartzean. Beraz, urtegiaren euskarriek ematen zituzten arrazoiak ez zetozen bat inguruaren ahalmenekin edo beste proposamen merke eta azkar batzuekin (Valle de Lersundi, 1994, or. 9). Baina Nafarroako hegoaldean ez da kantitate arazorik aurkitzen, kalitatea baita arazo nagusia baizik hau Itoiz eta Esako urtegien bidez konpontzea espero zen hasiera batean (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 109).

1982an nekazaritzako produktuen prezioen igoerarekin, Israelgo teknikari batzuek Nafarroako ur-baliabideen erabilera optimoa aztertu zuten. Bertan, Erdialdean eta Erriberan ureztapena jartzea planteatu zen. 6.000 hektarea bihurtzea proposatu zen hasiera batean, baita Potasas de Navarra ureztatzeko elementuen fabrika bihurtzea ere, nekazaritza-ekoizpenaren aldaketaren ondoriozko garapen tekniko handia suposatu zuelako. Horregatik Itoizko urtegiaren plana jarri zen martxan, Muaz defendatzen duen bezala plan guztian zehar zenbait ondorio baztertu ziren eta irizpide desarrollistei fabore egin (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 107). Bestetik, egindako lur analisiak ez dute guztiz lur mota guztietan sakontzen. Maezen esanetan, azterketa bat egingo balitz, frogatuko litzateke ureztatzeko baldintzak betetzen dituzten hektareen kopurua oso txikia izango litzatekeela, esperoetako 57.713 hektareetatik bakarrik 10.000 izango ziren baliagarriak (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 107). Horregatik defendatzen du Itoiz ez dela irtenbide bat, beste arazo bat baizik.

Bestalde, ureztaketarako eraldaketa ez da arazo fisiko hutsa, azkenean aldaketa sozialak eragiten ditu. Nafarroako ubidearen proiektuaren aurretik, Nafarroako beste eremu batzuetan nekazaritza-ekoizpena aldatzeko proposamenak egin ziren, eta *Riegos de Navarra SAK* bideratu zituen (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 107).

Cadreita eta Corellaren kasuan, non lehen eraldaketak gertatu ziren, lur asko abandonatu egin ziren, kalitate txarreko ekoizpena aldatzeko egokiak ez zirelako. Horrek zalantzan jartzen zuen ekoizpen honen lurra produktiboa ez den leku batzuetan ezartzeko beharra. Aldez aurreko analisi edafologikoaren beharra ikusi da. Tuteraren kasuan, ureztatze eremuen bihurtzea sustatu zen gizarte jarduketarako modu gisa. Lursailen banaketa auzokideen artean sustatzea saiatu zen, herri-lur gisa. Baina errealitate edafologikoak eta produkziokoak eremuen mekanizazio sistema eta inbertsioa

eskatzen zuen (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 109). Horregatik lur landa askok abandonatu ziren, azkenean Udalak bere burua behartua ikusi zuen nekazari "handiei" lurrak saltzeari. Beraz, ekoizpena ureztatzera aldatzen zen froga-eremuetan, ekoizpenekoak ez ziren lurrak abandonatu egin ziren eta aldaketa kostu handia izan zituzten. Azkenean aurre egin ezin izan zitzaiona, eta kontraesana egon zen planaren helburu sozial askoetan. Egoera guztiz ezegonkorra bihurtu zen eremu askotan, kostuei aurre egin behar zitzaielako. Egoera hau tradizionalki ureztatze beharra izan duten eremuetan eman zen, horregatik behar hau izan ez duten eremuetan ezartzeak zentzugabea izan zen nekazari txiki eta teknikari askoen iritziz (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 110).

Urtegi eta ubidea bezalako azpiegitura monumentalak eraikuntza eta mantendu koste altuak eragiten dituzte, Muazen aburuz Nafarroaren zorpetzea sorraraziz eta honen mendekotasuna lurraren produktibitatearen zain egonez. Azkenean produktibitatearen gaineko zorpetzea saihesteko, ekoizpen-sistema horretarako egokiak ez diren lurretan sustatu behar da. Hori dela eta, azalera handiak ustiatu beharko dira, txikiak abandonatuta daudelako. Horiek ustiatzeko, mekanizazio garestia beharko da, eta oso produktiboak ez diren lurrak direnez, ongarriek ematen duten energiaren beharra egongo da. Mendekotasuna dela-eta ingurumen-arazo gehiago eragingo dituzte, akuifero naturalen kutsadura kasu. Horrelako gastuei bakarrik azpiegitura handiek egin diezaiekete aurre, gain ekoizpenaren alde egiten duten enpresa handien bultzada batekin. Lurra lurjabe handien eta multinazionalen menpekoa eta jabetzakoa bihurtuko zen, nekazari txikiak alde batera utzita. Horrela, inguruko gizarte-ehuna kaltetu egingo da, eta nekazari izatetik "langile" bat izatera igarotzen da, eta "bere lurra" uztera behartua egongo da (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 110). Hortaz, lortuko dena izango da lur eta landa munduaren kapitalizazioa. Lurren produktibitatea bultzatuko da baina kostu sozial handiekin. Azkenean %15ko azpiegiturak abandonatuak izan dira kostuen ondorioz, ezinezkoa delako nekazari arrunt baterako horrelako eskaerari aurre egin bai kostu eta produkzioan. Itzaleko bidesaria deiturikoa bilakatu zen ordaintzako irteera. Proiektua publikoa izango da, gobernuaren partetik bultzatua baina honen finantzaketa eta kudeaketa enpresa pribatuen partetik emango da (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 113).

Nekazariak, kanalak eskainiko lizkiekeen aukerez baliatu ahal izateko, erabilitako azpiegitura guztiak enpresa pribatu bati ordaindu beharko lizkiokete; kasu honetan, CANASA S.A. enpresa pribatuen eta gobernuaren finantzaketaren mende dago. Ureztaketek emango lizkieketen "aukerak" ordaintzeko, itzaleko bidesaria deritzona ordaindu behar zuten. Kudeaketa hori ezin izan dute denek onartu, kasu askotan lurrak bertan behera utzi eta azalera handiek lurrak kapitalizatzeko laguntza eman dute (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 106). Beraz, ubidea eta Itoitzarekin landa munduari ematen zaion ustezko laguntza ez da guztiz gertatzen. Lurrak mantentzeko kostu handiak eta ekoizpen modu

berriak ez dira guztiontzako bizimodu bihurtzen. Horrela, babestu nahi zen gizarte-sare tradizionala desagertuko zen (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 110).

Aipagarria da Antonio Rebollok egin zuen ikerketa, hau izan baitzen gehien ikertu behar izan zen gaietako bat, askoren aldetik nahiko arrazoi eman zituen proiektua geldiarazteko: urtegiaren uholde eta haustura arriskua. Hau da, herritarren segurtasuna. Rebollo Itoizen eta Iruñerriko arroa sismikotasun handiko eremu batean daudela defendatu zuen, lur-geruzaren azpiko failen ondorioz. Urbasa-Andia mendilerroaren eta Aralarren arteko lotura dela eta. Beraz, Itoiz Pirinioetako mendilerro horien eraginpeko eremu batean dago, eta epizentro-leku bihurtu zen. Rebolloren arabera, Richter eskalan 4,3ko batez besteko intentsitatea duten lurrikarak har daitezke urtegiaren. 1,2 arteko magnitude txikiko dardarak ere arriskutsuak dira urtegiarentzat eta bertako biztanleentzat, haustura-arriskuagatik (Rebollo, 2001, or. 25).

Bestalde, espazioaren morfologia bera hauskorra da presio-aldaketen aurrean, urtegia betetzeak eta husteak eraginda. Rebollok adierazi zuen urtegia betetzeak arriskua zekarrela, Flych-a labaintzeko arriskua zegoelako, haren egituragatik eta urak hartuko zuen altueragatik. Bestalde, ezkerreko hegala bete eta hustu prozesuen bitartez apurketa progresiboa jasango zuen tentsio aldaketen ondorioz (Rebollo, 2001, or. 26). Alde horiek hautsiz gero, hegaletako sedimentuak presaren gainean presio handia eragingo lukete eta presak hausteko arriskua egongo litzake. Hori gertatuz gero, Itoizko Larrialdi Plana idatzi zen²⁰. Plan horren arabera, Agoitz eta Zangoza bailarako ebakuazioa zuzentzeko minutu batzuetako alarmak izango ziren herrian. Hala ere, uraren presio handiak berehala suntsituko zituen haranak, herriak ebakutzeko astirik eman gabe. Beaumont abokatuek egoera definitu zuten bezala "*Itoiz erloju-bomba bat da*"²¹. Arrisku geologiko horiek 2012an egiaztatu ziren. Mendi-hegaletako bat erori egin zen urtegiaren oinarritzko egitura eta zimenduak mugituz. Rebollok dio Itoiz arrisku-egitura bat dela, eta azterketa morfologiko eta geologiko egoki batek bizitza asko salba ditzakeela. Baina giza balioen aurrean ekonomikoak egon ziren Itoiz eraiki zenean (Rebollo, 2001, or. 32).

6/1987 Foru Legeak²², Lurraldearen Babeserako eta Erabilerarako Eskualdeko Hirigintza Arauei buruzkoak, 3 erreserba integral eta 38 erreserba natural izendatu zituen babestu beharreko espazio

²⁰ *Procedimiento de evaluación de impacto ambiental de Canal de Navarra y la transformación de sus zonas regables: memoria-resumen, octubre 1995.* (1995). Secretaría de Estado de Política Territorial y Obras Públicas. Or.3.

²¹ Porto, I. & Morales, J. (2017eko uztailak 7). Si itoiz es una bomba de relojería latente, el recrecimiento de Yesa lo es en caliente. *Noticias de Navarra*.

²² 1987ko apirilaren 10ean.

bezala. Irati eta Urrobi ibaien fokuetan daude: Iñarbe, Gaztelu eta Txintxurrenea. Horietan, babes bereziko landaredia eta fauna aurki ditzakegu, urtegiaren eraikuntzak larriki kaltetu zituenak, eta horrek salaketa-gune bihurtu zen urtegiaren aurka jo zuten teknikari eta mugimenduentzat. Arroiletan bizi diren animalia asko azken urteotan babes berezikoak dira, adibidez: igaraba, sai zuria, ipurtatsa, lepazuria, hontz erreala, putreak, etab (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 14). Guneak bereziak dira berez, bai faunagatik, bai landarediagatik. Horregatik, logikoa da administrazioak babes-eremu izendatu izana. Baina Itoizko eraikuntzak ekosistema horiek arriskuan jarri zituen bere osotasunean. Itoizko urtegiaren uztarketa planteatzeko orduan espazio horiek deklaratu baziren ere, urtegiaren mugek hartzen zituzten babestutako eremu gehienak. Elosegik azaldu duenez, ekosistema babesteko hasierako proposamena ahultzen zen (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 15).

Urtegiaren 590m-ko kota Irati eta Urrobi ibaietaraino iristea aurreikusita zegoen. Horrela arroilen zati bat urez beteko zen, eta biodibertsitatearen murrizketa eta galera ekarri zuen. Horregatik, teknikariek eta Natur Erreserben defendatzaileek salatu zuten ezinezkoa zela eremu berezien babesa eta azpiegitura handien uztarketa bateragarri egitea (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 15). Elorreguik horrela salatu du gobernuak urtegia egiteko hartutako erabakia:

"Natur Erreserbak, arroila hauek babesteko diseinatuak, engainu bat dira. Proiektatutako Itoizko urtegia bateraezina da ekosistema horiek bere osotasunean kontserbatzearekin; beraz, haien uztarketa segurutzat jotzen bazen, Nafarroako Gobernuak uko egin beharko zion gune babestu izendatzeari." (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 15).

Ez da soilik urtegia bera babes-eremuetarako arriskutsua, baizik eta konstrukzio prozesua bera azkenean arriskutsua da. Urtegiko obra osagarriak, hala nola harrobiak irekitzea edo errepedeak sortzea, oro har, mehatxu dira. Baina Nafarroako Gobernuak azpiegitura eraikitzeko irteerak proposatzen jarraitzen zuen, bere neurrien aurka joz, hala nola Iñarbeko arroila zeharkatzen zuen errepede baten uztarketa, atzera bueltarik gabeko hondamena bideratuko zuena. Hau da, Gobernuak berak deklaraturako eremuak suntsitu nahi zituen, etengabeko kontraesanean aurkitzen zen gobernuak (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 16).

1993ko maiatzaren 5an Basafauna eta Habitatak Babesteko eta Kudeatzeko 2/1993 Foru Legea argitaratu zen. Bertan, 250-500 metroko babes-eremua ezarri zen inguruan. Gainera, legearen arabera, azpiegiturak salbuespenez baino ezin ziren baimendu, ingurune babestuari eragin gabe. Baina urtegiaren sorrerak erabat hausten du lege hori, ez baita narriadura natur gunea ez deuseztatzea. Gainera, 1990ean, Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) onartu ziren Foru Aldundian,

besteak beste, urtegiaren urak har ditzakeen eta 590 metroko kotatik oso gertu doituta dauden eremuetan (Alcalde Díaz de Cerio, 1993, or. 17).

2.2. Koordinakundearen auzi legala

Azpiegitura handi guztiek sortzen dituzte arazo legalak, beren izaeragatik eta jokoan dauden interes ekonomiko pertsonalengatik edo taldeen interesengatik gerta daitezkeen akats administratiboengatik (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 171).

M^a Jose Beaumontek azaltzen duen bezala, Itoizek administrazio txarraren sinboloa izan da (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 32). 1991ko abenduaren 2an, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Nafarroako Ubidearen I. fasearen proiektua argitaratu zuen. Proiektu hori 1992ko abenduaren 17an onartu zen. 1993an, Nafarroako Gobernuak eragindako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzei ekin zion (Beaumont & Beaumont, 2003, or. 48). Hau izan zen auzi legalaren hasiera, Koordinakundearen borroka legala.

Proiektua onartzeko, aplikatu beharreko araudia bete behar zen, beste egintza batzuk alde batera utzita, hala nola lurraldekoa edo desjabetzekoa. Proiektua onartzea eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena onartzea behar zuten. Ekintza horiek Ingurumen Ministerioaren bidez onartu beharko liriateke. Bestalde, jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoez arduratzeko eskumen judiziala beste auzitegi batzuetan dago. Hori dela eta, salaketa-prozesuek askoz ere denbora gehiago behar zuten (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 172).

Itoizko Koordinakundeak hasieratik argi izan zuen administrazioari aurre egitea bere helburuetako bat izango zela (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 172). Talde ekologistentzat ez da oso ohikoa izaten azpiegitura handiak onartzen dituzten administrazioen akordioetan bide judiziala erabiltzea. Askotan, horien lege-ondorioak ez ezagutzeagatik edo ikuspuntu ekonomikotik jarraipena egitearen kostu prozesalagatik (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 171).

Beaumont abokatuen arabera, administrazio-bideen akatsa prozesuen geldotasuna da. Muga horren jakitun izan ziren hasieratik. 1993an, urtegiaren obrak hasi zirenerako garaiz errekurritu bazen ere, ez zen inolako erabaki judizialik eman, nahiz eta abokatuek 1991n aurkeztu izana. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak berandu eman zuen epaia. Auzitegi Nazionalako Administrazioarekiko Auzien Salak lau urte eta bederatzi hilabete behar izan zituen proiektua baliogabetzeko 1995eko irailaren 29an. A.N.k urtegiaren eraikuntza bertan behera uztea berandu iritsi zen, baina arnasa izan zen koordinatzailearentzat. Abokatuek espero zuten prozesu judiziala lanak amaitu baino lehen iristea

eta obrak geldiaraztea lortu, baina ez horrela izan (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 173).

Koordinakundeak bazekien prozesu judizialak berandutu zirenean obrak eteteko eskatu behar zutela, atzera bueltarik ez zuen arazo bat bihur ez zedin. Auzitegiek arrazoi hori eman zieten arren, bakar batek ere ez zuen obren etendura formulatu. Administrazio bideak motelak izan ziren obren azkartasunaren aurrean (Beaumont & Beaumont, 2003, or. 49).

Auzitegi Nazionalak epaia eman zuen 1995eko irailaren 29an, Itoizko Koordinakundeak Herri Lanen Ministerioaren 1990eko azaroaren 2ko Ebazpenaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoetan. Itoizko Proiektua onartzen zuela. A.N.ren erabakia hainbat gaitan oinarritzen zen, eta Koordinakundearen onerako proiektua legez kanpokotzat jo zen azkenean. Horrek obrak erabat geldiaraztea espero zen. Gainera, epaia argitaratu zenerako, inbertitutako gastu publikoa eta ingurumen-kalteak handiak izan ziren (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 174).

Auzitegi Nazionalak adierazi zuen proiektua onartzeko beharrezko lege-estaldurarik ez zeudela, Plangintza Hidrologikorik ez zegoelako. Bestalde, lege-babesik ez zegoenez obra Estatuaren interes orokorrekotzat jotzen denean, obraren beraren ezaugarriak zehaztu behar dira, Uren Legeak eskatzen duen bezala (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 173).

Auzitegi Nazionalak berretsi egin zuen Itoizko dokumentu tekniko askotan azaldutako gaietako bat. Itoizko presa lur aldaketa baten zati gisa justifikatu zuen Gobernuak, lehorrekoa izatetik ureztatua izatera. Teknikariek behin eta berriz esan zuten ez zegoela horren beharrik Ureztatze egitura zaharrak eraldatzen baziren (horrela azaldu zen iada 1994ko txostenean). Auzitegi Nazionalak adierazi zuenez, proiektua ez zuen zehazten eta justifikatzen zuen edo zentzua ematen zion helbururik (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 174). Beraz, Nekazaritza Erreformatzeko eta Garatzeko Legearen eta Estatuko Kontratuen Erregelamenduaren eta Uraren Legearen arabera, Itoizko urtegia justifikaziorik gabe eman zen (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 176).

Bestalde, A.N.k ebatzi zuen Itoizko Presaren Aurreproiektuaren Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko azterlana ez zela jendaurrean jarri Presaren Proiektu Teknikoarekin batera, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Erregelamenduaren 15. artikulua agintzen duen bezala (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 176).

Epaimahaiak adierazi zuen proiektuak eragindako Natur Erreserben eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuen izendapena eta mugaketa errespetatu egin behar zela. Hau da, urtegiaren funtzioa

ez zetorren bat 1993ko abuztuaren 2ko Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegia adierazitakoarekin. Epai horren arabera, irizpide ornitologoei jarraituz errespetatu behar da mugaketa. Era berean, argi utzi zuen urtegiak arriskuan jartzen zituela eremuak eta kalte larriak eragin zitzakeela. Bestalde, legeak ezarritako muga errespetatu behar zela adierazi zen. Babes-leku osoa bihurtzen zela eta estatu kideek babes-eremu horietatik kanpo habitatak kutsatzea edo hondatzea saihestu behar zutela, 79/409/EEE eta 92/43/EEE Zuzentarauen arabera. Hortaz, epaiak dioenez, bailara osoa babes-muga baten barruan zegoen eta arriskuan zegoen presa eraikitzearen ondorioz. Halaber, Txintxurreneako Potxe Erreserba Naturaleko babes-bandaren barruan zegoen ustiapen-harrobia legez kanpokotzat jo zen. Hau da, eremua, berez, ez da bateragarria lurzorua babesteko helburuarekin (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 177).

Beraz, Auzitegi Nazionalak legez kanpokotzat jo zuen proiektua. Koordinakundeak eskatu zuen, bestalde, obren etendura deklaratzeko, A.N.k onartu egin zuen eskaera baina honelako erabakietan Gorenak zuen azken hitza. Obrak bertan behera uzteko agindua eman zen. Baina pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak ziren obrak egin behar zituzten (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 179).

Auzitegi Nazionalak abal bat ezarri zuen, koordinakundeak ordaindu beharrekoa. 12.951.211.411 pstkoa abala izan zen. Horrela, Auzitegi Gorenak obreen inguruan erabaki batera heltzen zen bitartean, obrek geldiaraziko zituzten. Abalak aukera ematen zuen Gorenak ofizialki urtegia legez kanpokotzat jotzen bazuen Koordinakundeak jarritako dirua itzultzeko. Baina azkenean horrela gertatzen ez bazen, abala eraikuntza-enpresari ordainduko zitzaion geldiaraztearen gastuak ordaintzeko. Baina koordinakundeak ezin izan zuen horrelako abala ordaindu. Obrak aurrera jarraitu zuten, nahiz eta irizpide eta erabaki judizialak oso zorrotzak izan obren etenduraren bidez kotasunari dagokionez (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 181).

Nafarroako Gobernuaren proiektua legez kanpokotzat jo ondoren, Nafarroako Naturguneen Legea eta Itoizko Urtegia eta Nafarroako Ubidea Interes Orokorrekotzat Deklaratzeko Lege Proiektua aldatu ziren. 1996ko urtarrilaren 29an, obrak eteten zituen salaren autoa ezagutu eta bost egunera, Nafarroako Naturguneei buruzko 9/1996 Foru Lege berria onartu zen (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 181).

Koordinakundeko abokatuen arabera, proiektua baliogabetzea saihesten zuen trikimailu bat izan zen. Foru lege berri horrek Itoizen ilegaltasuna justifikatzeko Auzitegi Gorenak errekurritu zuen aurrekoari eragiten zion, Erreserba Naturalen bandak arriskuan jartzen baitzituen. Foru lege horrek erabat ezabatzen zituen erreserben mugak (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 182).

Koordinakundearen arabera, babes-eremuak desklasifikatzea zentzugabea zen, irizpide ekologiko eta zientifikoetan oinarritzen baitziren. Gainera, neurri hori Konstituzioaren aurkakoa zen²³, Konstituzioaren 9.3 artikulua arabera atzeraeragina debekatzen baitu. Konstituzioaren 45. artikuluari ere egiten dio aurre, pertsona garatzeko egokia den ingurumena izateko eskubidea aldarrikatzen baitu, bai eta ingurumena zaintzeko betebeharra ere. Baita botere publikoek hura zaintzeko duten betebeharra ere (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 184).

Beraz, foru-lege bat garatu zen, Auzitegiak emandako deklarazioa baliogabetuko lukeena. Baina Koordinakundeko abokatuek adierazi zuten lege berria ezin zela obraren esparruan sartu, aurretik eman baitzen ilegala. Gainera, obra egitea eta presaren eraikuntzak ingurumena degradatu eta suntsitu zuen iada (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 185).

Hala ere, 1997ko apirilaren 25ean presa Interes Orokorrekotzat jo zen, horren ondorioz, proiektua beharrezko zerbait bezala aurkeztu zen. Estatuarentzako interes orokorreko deklarazioaren bidez justifikatu zen, industria eta ekonomia garatzeko bide bat zelako. Gainera, Uren Legearen 44. artikulua arabera, Nafarroako Ubidea eta Itoizko presa interes orokorrekoak dira. 29/1985 Uren Legearen arabera horrela ezartzen delako (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 187):

Interes orokorreko obra hidraulikotzat hartuko dira, eta Estatuko Administrazio Orokorren eskumenekoak izango dira. Ur-baliabidea erregulatzeko eta bideratzeko beharrezkoak diren obrak, arro osoan uraren erabilgarritasuna eta aprobetxamendua bermatzeko diren obrak emango dira Interes orokorrekoak. Baita, hornidura-, edan- eta gezatze-obrak, baldin eta autonomia-erkidego bati baino gehiagori eragiten badiote. (29/1985, Uren Legea).

Itoizko koordinakundeak larri aurkitu zuten bere burua borroka baten aurrean, non zentzu judizialak eta politikoak talka egin zuten. Baina koordinakundeak frogatu zuen botere publikoei aurre egin zitezkeela. Frogatuz ez dela soilik auzi judiziala kontuan hartu behar, baizik eta etikoa ere bai. Erakutsi zuten talde ekologistentzat bide legala posible zela (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 197). Aldi Berean, frogatu zuten hau ez zela "lau lagunen zirikatzeo grina"²⁴. Baizik eta frogatu zuten Itoiz justiziaren, etikaren, ingurumenaren eta politikaren gai bat zela. M^a Jose Beaumont azaldu zuen Itoiz administrazio txarraren sinboloa bihurtu zela, baina baita herriak eskatzen zuen justizia behararen sinboloa.

²³ Espainiako Konstituzioa (311. BOE, 1978ko abenduaren 29a).

²⁴ Garde, M. (1995eko urriak 8). Cien kilómetros para tomar el pulso a Itoiz. *Diario de Navarra*, or. 56.

2.3. Mugimendu ekologistaren muina

Lurraren inguruko problematika ez da azken urteetako arazo berria, ingurumenaren gaia azken urteotan aipagarria bihurtu da²⁵. Gizakiaren kontsumo eta bizitza modu ezegonkorrak izan dira ingurumenaren krisiaren kausa. Elkarte ezberdinen partetik salatu egin da egoera, ikerketa zientifikoak oinarri izanda ezegonkortasun kasuak aurkeztu dituzte esfera guztietan (Casado da Rocha & Antonio Pérez, 1996).

Timothy Mortonek azaltzen duen bezala: "*gu gara asteroidea*" (Serratos, 2019, or. 120). Indarrean dagoen ingurumen-arazoari dagokionez, gizarteak ez du ingurumen-inpaktuaren kontzientziarik. Egungo mundua eta gizartearen ekintzak apokaliptiko gisa definitzen ditu, biztanleriaren ekintza batek globalki eragiten du azkenean. Francisco Serratosek azaltzen duen bezala ingurumenaren aldaketa ez dator azkenengo mendeetako ekintzetatik, industria iraultza ez zen hasiera izan. Arazoa edo aldaketa itzulezinak gizakiaren esistentziarekin lotu beharko genuke. Neolitikotik edota nekazaritza garatu genuen momentutik hasi zen gizakia ingurumena eraldatzen, hau da Serratosen iritziz Antropozeno garaia (Serratos, 2019, or. 120).

Antropozenoa izan da gizakia planetaren historiaren parte bihurtzen hasten den garaia. 1998an definitu zen aldi hori, giza historiari erreferentzia egiteko. Baina ingurumenari dagokionez, gizakien eta naturaren arteko interakzioak sortzen hasi ziren unea edo aldia da atzeraezinak izango liratekeenak. Bestetik kapitolozeno bezala definitutakoa kapitalismoa hazkundearen ardatz bihurtzen hasten den aldia ezartzen du (Moore, 2020, or. 203). Hazkunde horrek inguruneari eragiten dio, eta atzera bueltarik ez duela erakusten du. Serratosek, bestalde, bi terminoak bereizten ditu antropozeno gisa, gure existentzia da planetaren historian. Kapitolozeno, berriz, gure izaeraren edo ezartzen dugun sistema ekonomikoaren zati bat da, baliabide naturalak merke eta iraupen luzekotzat hartzean oinarritzen dena (Serratos, 2019, or. 123). Moorek antropozenoa historiaren kontu osatugabea bezala ikusten du bere horretan gertatzen dena. Eta kapitolozeno diskurtso zabala da, kolonialismoa, arrazakeria, industrializazioa, globalizazioa, patriarkatua eta abar barne hartzen dituena (Moore, 2020, or. 206), eta iragana eta oraina neurri desberdinetan ukitzen dituena.

Kapitolozeno garaia barnean J. Martinez Alierrek azaltzen duen borroka sortuko zela gizartearen talde batzuen partetik, honi Martinezek *Txiroen ekologismoa* deitu zion. Honen aburuz, pobreen ekologismoa gai materialekin eta bizimoduekin lotutako gatazkak dira. Kapitolozenoaren

²⁵ Hala ere, ekonomialari eta ingurumen teknikarien partetik duela asko bihurtu zela ekologismoa kezka nabarigarria.

ondorioen aurkako borroka da (Martinez Alier, 2021, or. 14). Hala ere, Mendebaldean eta beste eremu batzuetan sortu ziren mugimendu ekologistak bereizten ditu, hala nola Hego Amerikan.

Europa industrialaren mugimendua hauskorra baina funtsezkoa da, kapitalismoaren eta demokraziaren arteko eztabaida da (Martinez Alier, 2021, or. 12). Martinezek pobreen ekologismo sistema kapitalista larri eragindako eremuan sortuko zen mugimendua gisa definitzen du. Haien bizimoduak eta ingurunea kaltetuta ikusiko zuten kanpo-ekintzen ondorioz. Martinezek multinazionalen hazkunde suntsitzaile kutsatzaileak eragindako tokiko erresistentziei eta borrokei egiten die erreferentzia (Martinez Alier, 2021, or. 34). Naturaren, ingurumenaren eta komunitatearen defentsa gatazka globala izango zen, kapitolozeno eta horren ondorioaren aurkako borroka.

Maria Palaciosen dio suntsipen mota horrek guztiak mehatxatzen dituela. Bi eragile bereizten ditu: garapen ekonomikorako naturaren suntsitzaileak eta biziraupenerako kontserbadoreak. Pobreen ekologismoa bigarren eragile hori izango zen. Kapitalak naturari egiten dizkion erasoen aurka borrokatzen duena. Mobilizazioak eta kontzientzia sortzen dituen (Martinez Alier, 2021, or. 36).

James Lovelockek berez 1995an Bartzelonan azaldu zuen mundu kapitalistaren kontsumo martxarekin gaur egungo mundua zazpigarren iraungipenaren ateetan aurkituko zela (Casado da Rocha & Antonio Pérez, 1996). Lurreko gaiak ekonomikoki neurtu dira, horrela hartu eta ikertu dira. Guztiari eman zaio prezio bat baina deus ez du balorerik ezarrita berez.

Azkenean baliagai naturalak produkzio kapitalistaren tresna nagusi bilakatu dira, horregatik hauei sistemaren partetik balore bat atxikitu zaie. Honela lurrak naturalki eskainitako materialak merkatuaren eta espekulazioaren biktimak bihurtu izan dira. Munduaren kontsumoa esponentzialki hazi da, azken urteotan 2030eko agendaren gai nagusia bihurtu da jasangarritasunaren inguruko kezka piztuz. Baina Robert Lattes, ekonomialaria, azaltzen duen bezala honelako neurrik gabeko hedapen eta kontsumoari aurre egiteko praktikan jarri beharko ziren politika berriak. Baina kapitalismoari bide eman ez espero da *ezkutuko eskua* deitutakoa merkatua kontrolatzea eta honi irteera ematea, nahiz eta Casado de Rocha azaltzen duen bezala erabakiak eta neurriak atzeratzea ez du arazoa konponduko baizik eta egonkortu (Casado da Rocha & Antonio Pérez, 1996).

Honen aurrean gizarte mugimenduak lehertu dute, ezegonkortasuna eta justizia bihurtu ziren hauen leloa. Ezarritako ordenaren aurka joko zuten mugimenduak aurre eginez injustiziei, honela eta honetatik jaio egin zen Itoizko urtegiaren aurkako mugimendua.

Itoizko koordinakundeak 1985ean sortu zen, herriak eta bailarako larruazala akabatuko zituen makro egitura hidrauliko baten uztartzearen mehatxuaren aurrean. Mugimendua haranean bizi ziren komunitate txikiek sortu zuten, 1977an Irunberriko urtegia eraikitzeke hasierako ideiaaren ondorioz sortu zen kontzientzia oinarri hartuta (Martín Barajas, 2008, or. 19).

XX. mendean zehar Espainiako gobernuaren politika uraren gakoan eskaintza eta eskariaren ikuspegiari eman zion lehentasuna, produktu natural bat kapitalizatuz eta komertzializatuz. Mendearen erdialdean, politika frankistetatik, lurraldeko baliabide hidrikoak handitzea izan zen helburua. Hau da, urteetan garatutako ur-politikak, berez, politika hidraulikoak izan dira. 1985eko Uren Legea Espainiako mugimendu ekologista askoren ezaugarri ziren hondamendi natural askoren hasiera izan zen. 1992an, lehorre garai batean, Gonzalezen gobernuak (PSE²⁶) Plan Hidrologiko Nazionala aurkeztu zuen, 273 urtegi eta 14 isuraldatze egitea aurreikusten zuena, defizit hidrikoa deritzona gainditu ahal izateko. Bultzatu diren ur-politikak hutsune hori gainditzeko ideia horretan oinarritzen dira; baliabide natural bat merkaturatu beharreko produktu ekonomiko gisa tratatzearen ideia da (Martín Barajas, 2008, or. 30).

Itoizko urtegia bezalako proiektuak, hala nola Esako handitze prozesua, izan dira Nafarroako ondare naturalei eragindako eraso bortitzenetako bat. Lehor eremuen eraldaketa izan da aitzakia ureztatze eremuen hedapenari bide emateko Ebroko Ibarran, nahiz eta hasiera batean planeatutako hektarea kopurua guztiz Nekazari Politika Bateratuaren (NPB) neurrien aurka jo izana. Nahiz eta legearen neurriek kopuru hori nabarmen murrizten duten. Hau da, ureztatutako hektarea-kopuru horiek ezartzeak milaka isun eragingo lituzke Europar Batasunaren aldetik, ezarritako produkzio-mailen gainean soberakinak sortzeagatik. Inposatutako kopurua guztiz gainditu zituen Konfederazioak (Arrojo, 2000, or. 49).

Plan Hidrologikoaren proiektu honek urtegi berrien eraikuntzaren gaineko erantzukizuna saihesten du, Ebro bailarak ureztatze horiek eskatzen dituelako. Erregulaziorako Mequinenzako (Zaragoza) urtegia erabiltzea defendatzen dute, baina justifikazio horrek zentzua galtzen du presa enpresa pribatu baten (ENHER) agindupean dagoela aztertzen denean, eta, horren ondorioz, ez dira Europar Batasunaren neurrietara atxikitzen. Presaren baliabideak ez erabiltzeko, desjabetu egin beharko litzateke (Arrojo, 2000, or. 49).

Pirenoetako urtegiak, Itoiz eta Esa batez ere, herri askoren suntsiketa suposatuz ehunga pertsona beren herrietatik kanporatzea ekarri zuen, horietako askok urpean amaitu zuten bertako

²⁶ Euskadiko Partidu Sozialista

ondarea galduz. Presa eraiki zenean gobernuak desjabetzei ekin zion, herri osoa suntsitu behar zen obrak hasi baino lehen, honen aurrean herri eta auzo guztia altxatu zen aurka baita. Elizaren balio artistikoagatik, harriz harri eramatea proposatu zen. Baina bizilagunek argudiatu zuten, ezin zuten eliza eraman eta herriari atzean utzi. Beraiek izan ziren mantendu zuten bakarrak eta orain arte inork ez zuela harekiko interesik izan, herriak izan ezik. *“Orain salbatu nahi dute? Nahi badute, herriarekin batera salba dezatela”* azaltzen zuen herriko batek²⁷.

Presaren eraikitzearekin eskualdeak desegin egin ziren, ibai basatiak eta ibaiko ondare oso aberatsak desagertu ziren guztiz, urak eramanda. Horiek, gainera, arriskuan daude gaur egun klima aldaketagatik eta urtegien berezko arrazoiengatik. Bai eta iraunarazten duten bizimodu tradizionalen suntsipenagatik ere, nekazari txikien desagerpena horrelako ondare natural asko jarri ditu desagertzeko arriskuan (Arrojo, 2000, or. 49).

Domino baten piezek bezala, urtegiak sortzea eta Ebroko haranera eramateak ekosistema osoari eragiten diote. Ebroko Delta bera atzeraka doa, mendeetan zehar sortutako formazio naturala arriskuan dago azken urteotako akatsengatik. Joan den mendean, arroan dozenaka presa eraikitzeak ibaiaren bokalean bertan eragina izan du azkenean (Arrojo, 2000, or. 49).

Presak eraikitzeak sedimentu naturalen mugimendurik ez egotea dakar, egongo ez balitz gertatuko litzatekeen bezala. Sedimentu horiek beharrezkoak dira ibaia bere ibilbidean zehar eta amaieran, Deltan, mantentzeko, eta, ondorioz, bertako ekosistemen zati batek iraun egiten du. Baina urtegiekin fluxu solido horiek gelditzen dira, eta hondoa geratu. Horren ondorioz, deltak berak atzerakada edo hondoratzea bizi du, itsasoaren maila igotzen du eta deltatik bizi diren 50.000 pertsona arriskuan jartzen ditu (Arrojo, 2000, or. 50). Ebroko ibarra Espainiako ekosistema natural garrantzitsuenetako bat izan da urtez, berez Doñana²⁸ ondoren aurkitzen da. Nekazaritzaren iturri izan da betidanik, ibarreko lur produktibitatea eta ur iturriak beharrezkoak izan dira ekonomiarako eta bizi modu tradizionalen mantentzerako (Arrojo, 2000, or. 50).

Gaur egun, emarien murrizketa, “gatz-ziria” deritzonaren sarrera eta lurpeko baliabideen gehiegizko ustiapena (Movellán Mendoza, 2004, or. 103). Espainiaren kasuan, gehien bat jabetza pribatuaren pean sartzen da. Akuiferoen kutsadurak, kimikoek, eutrofikazioak eta gazitzeak muturreko egoerak eragiten dituzte, eta, azkenean, Espainiako ingurune biologiko aberatsenetako bati eragiten

²⁷ Barandiaran, A. (1993eko Uztailak 9). Ura lepoan izan arte. *Nafarkaria*, or. 4-5.

²⁸ Gaur egun baita ureztatze eremuen ondorioz eta Lurrazpiko uraren neurrik gabeko ustiapenaren ondorioz krisi ekologiko baten aurrean aurkitzen da.

diote. Hau da, gero eta ustiapen handiagoarekin eta inguruko beharrian biologikoetara egokitzen den neurri murriztailerik ezarri gabe, azkenean kolapso biologikoa gertatuko da (Arrojo, 2000, or. 50), eta egoera hori ematen ari da azken urteotan, 2023an Doñanan gertatu den bezala (Mayo, 2019). Azkenean, goi ibaian gertatzen den krisia deltan ikusgai da, prozesua ibai guztian zehar eragiten du itzulerarik gabeko prozesua emanez.

Horregatik, mugimendu ekologistek urteak daramatzate ingurune osoari eragingo dion krisi klimatiko hau iragartzen; ez da arazo autonomiko bat, baizik eta herrialdearen ingurumen-politikaren beraren egiturazkoa. Hori dela eta, bultzatu nahi diren urtegiak sortzea guztiz kontraesanean dago ingurunearen iraunkortasunaz arduratu beharko lukeen zuzentzarauaren helburuekin. Beraz, egoera ez da Nafarroako eremu txiki batean dagoen arazo bat, baizik eta arazo global bat, prozesu natural eta ekoizpen prozesu asko arriskuan jartzen dituena. Arrojo dioen bezala, egoera horiek alde batera uztea arduragabetasun politiko eta sozial handia da, eta arazo estruktural eta kontzeptu-arazo handi batek markatzen ditu (Arrojo, 2000, or. 50).

2.4. Itoizko Koordinakundea eta Itoizko solidarioak: auzo mugimenduaren bilakaera

Nafarroan, aurreko hamarkadetan, kontzientzia ekologistak indarra lortu zuen nuklearren aurkako borrokaren ondorioz, eta, gainera, landa-eremuen despopulazioari buruzko kontzientzia gatazka-gai bihurtu zen. Nafarroako gazte populazioa hirira edo industrialdeetara migratzen ari zen une batean zegoen, landa-hustuketa baten ondorioz. Herri txikiak eranztzen eta zahartzen ari ziren, eta 70eko hamarkadako biztanleen artean gai asaldatua bilakatu zen (Estebaranz, 2008, or. 106).

Landa-habitata apurka-apurka suntsitzeko joera, gazteak hiribururantz etengabe joatea eta biztanleriaren zahartze erlatiboa ziren talde horren kezka nagusiak. Proiektu horrek lurraldearen giza desertifikaziorako eta landa-eremurako joera nabarmen hura sendotzea zekarren. Administrazioaren laguntza zuen mugimendu bat izatea lortu zuen, bere kontzejuak ere urtegiaren uztartzearen aurka egon baitziren. Legebiltzarreko alderdiaren aurka zegoenez, kontzejuen eta tokiko kargudunen administrazio-koordinazioa iradoki zuen, konstituzioaren aurkako oposizio gisa. Beraz, mugimendua ez zen soziala bakarrik izan, hainbat talderen babesa lortu zuen arazoa izan zen. Mugimendua, azkenean, administrazioarekiko oposizio indartsu bat izan zen, erlatiboki, baina ez zen tokian-tokiko mugimendua bakarrik izan. Baizik eta mugimendu eta talde ekologista askorekin bat egin zuen, edo justiziaren aldeko bestelako kausekin baita bat egin zuen. Nafarroan mugimendu plurala izanik, garaiko beste mugimendu batzuekin batu zen, hala nola *AHT* edo autobiaren aurkako mugimenduekin (Estebaranz, 2008, or. 108).

Ulrich Beck-ek azaltzen duen bezala modernitate industrialaren arriskuaren gizarte bihurtu da. Muga guztiak gainditzen dituen arriskuaren botereak ezaugarritzen du modernitateak, hau da, modernitate industrialaren arriskuko gizartearen bidean gidatzen digu eta honen ekintzen ondorioekin talka eginen dugu (Bentancor Nuez, 2011, or. 748). Hortaz, Becken aburuz, gizarte industrialaren eskutik baita etortzen dira arazo eta arrisku unibertsalak. Sistema kapitalista eta industrialak sortutako egoera berriak ez du mugak ezagutuko, hau da, neurrik gabe zabalduko da modu global batean. Horregatik eman dira azken urteotan, batez ere pasaden mendearen bukaeratik, ekologismo edo ingurumenarekin lotutako mugimendu ezberdin (Bentancor Nuez, 2011, or. 749).

Lurralde industrialetan balio *postmatelista*goak hedatu egin dira eman baitaio garrantzi gehiago hazkunde ekonomikoari eta bizi kalitateari. Baita, hezkuntza eta informazio politikoa zabalduegoa dagoelako eman dira azken urteetan ekologismoarekin lotutako mugimenduak, gizartearen sentsibilizazioa garatu egin delako (Bentancor Nuez, 2011, or. 749). Hemendik sortu egin dira NIMBY deituriko mugimenduak, *Not in my back yard*, komunitatearentzat arriskutsuak diren instalazioek edo azpiegiturak eragindako mugimenduak (Bentancor Nuez, 2011, or. 751).

NIMBY mugimenduak zentzu negatibo batean ikertu dira, berekoiak bezala definituz egoera partikular batetik sortzen delako eta ez global batetik. Baina azkenean zentzu edo kezka globaletan sartzen dira, bestelako mugimenduekin lotuz eta hauekin sare bat sortuz, hau da, gizarte mugimendu bateratu batean sartuz edo partehartuz. Hemendik, baita NIABY (*Not in anyone's back yard*) deituriko mugimenduak eman dira, hauek zentzu soziologiko batean gizarte mugimendu heldu bat bezala eratu dira (Bentancor Nuez, 2011, or. 756).

Kaltetutako herrien iritzia argi geratu zen urtegia eraikitzen hasi baino lehen, *Nafarkarian* 1993an obrak parean izanda Itoitzen bizi ziren familiak defendatu zuten haien etxea. "*Ura lepoan izan arte*" egonen ziren haien etxean, zain eta muinez defendatuko zuten. Itoiz, Muniain, Nagore, Orbaitz eta Artzokiko biztanleek herria mantendu nahi zuten, borrokatzeko grin bizia izan zuten. Arbasoen etxeetan bizi ziren, ezin zuten imajinatu ere egin urak eramango zituenik²⁹.

Hortaz Itoizko mugimendua auzoan hasi zen berez, komunitatea kaltetua batu eta urtegiaren aurka jo zuen, zentzu sozial eta administratibo batean. Lehenengo urteetan, koordinadora proiektuaren kontzientzia eta ikusarazte sozialera bideratu zen. Mugimendu horiek komunitate osoa kontzientziaztea eta herriaren zati handi bat mugiaraztea lortu zuten. Mugimendu hori, hasieratik, mugimendu antinuklearrekin oso lotuta egon zen, ingurumenaren inguruko kezketan txertatu berriak

²⁹ Barandiaran, A. (1993eko Uztailak 9). Ura lepoan izan arte. *Nafarkaria*, or. 4-5.

baitziren. Hiriburuko militante antinuklearrek lagunduta, mugimenduak babes handia jaso zuen, landa eremua bere ondarea babestea zuen xede (Estebaranz, 2008, or. 109).

Modu lokalean antolatutako mugimendua izan zen, batzar irekiekin eta zonako ordezkariekin antolatua. Garai hartako beste mugimendu batzuekin bat egin zuen mugimendua zenez, diskurtso plural bat osatzen zuen: natura-ondarearen defentsari buruzko argudioak eta industriak giza osasunerako zekartzan arriskuen aurkako argudioak konbinatuz. Baina, batez ere, landa-munduaren iraupenean eta haren bizikidetzan oinarritzen zen bere diskurtsoa, industria-munduak arriskuan jartzen baitzuen (Estebaranz, 2008, or. 111).

Hala ere, Nafarroako komunitatearen kontzientziazioan inflexio-puntua markatu zuen kasuetako bat Leongo Riañoko urtegiaren kasua izan zen. Primo de Riveraren garaian hasitako liskarra zen, landa-eremuko erresistentzia-mugimendu bihurtzea lortu zuen. 80ko hamarkadan, populazioaren eta administrazioaren arteko tentsioa hazi egin zen, aranean urtegia uztartzeko mehatxua zegoelako, herriak suntsituz "etorkizun modernizatzaile" baten alde (Estebaranz, 2008, or. 112). Tokiko taldeen erresistentzia: tokiko karguak, kargu zibilak eta elizakoak. Nafarroako herritarrak kontzientziatzeko funtsezkoak izan ziren, Leonen defentsan zeuden mugimendu ekologistek batu eta babestu baitzuten. Leongo egoera Nafarroara mugitu zen, eta adibide gisa jarraitu zuten Irati ibaia defendatzeko (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 112). Riañon egondako diskurtso eta erresistentzia formak itoizko errealitatera pasa zitezkeen (ikusi 1. Irudia).

2.5. Erresistentzia formak: mugimendua zabaltzen

Hasiera batean, azaldu bezala, mugimendua sentsibilizazioan ardaztu zen. Manifiestoak edota txosten informatiboak argitaratzen zituzten komunikazio-sareen isiltasun itunak hausteko asmoz. Bestalde, mugimenduak beste batzuekin harremanak egitea lortu zuten, hala nola Riañoko Bideko ekologista kanpotarrekin aliatzea, arriskuan zegoen Europako Mendietako fauna defendatzeko. Gainera, toki- eta eskualde-administrazioen babesa lortu zuten, koordinakundeak Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasuneko legeria protekzionistaren arteko interes-talka aurkeztea eta ikustea ahalbidetu baitzuten. Hau da, bi bide jarraitu zituzten; batetik legala administrazio lokalen partetik eta iritzi publikoaren aldaketa herritarren partetik (Estebaranz, 2008, or. 112).

Artze, Longida eta Iratiko haranetako bizilagunak eta erakundeak, kaltetuenetakoak zirenak, urtegiaren aurkako indar nagusietako bat izan ziren hasiera batean. Talde horiek "lankidetzarik gabeko" une bat eman zuten obraren lehen etapetan, hau da, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanetan edo eragindako herrien desjabetzean parte ez hartzea (Estebaranz, 2008, or. 116).

Koordinakundearen lehenengo salaketa-puntuetako bat 1990eko legeak HBBEi³⁰ buruz ezarritakoa ez betetzea izan zen. Eremuen babes-azalerak % 40 murriztu ziren uholde-kotagatik (Estebaranz, 2008, or. 117). Haien defentsaren ondorioz, Babes Elkartek³¹ mugimendua babestu zuten.

Era berean, Aranguren ibarrean egin nahi zen zabortegiaren aurkako proiektua edo Irurzun-Andoain Autobiaren Aurkako Koordinakundea bezalako gatazkekin bat egin zuten. Beraz, nahiz eta auzo-mugimendu gisa hasi, NIMBY bezala defini zitekeena, azkenean mugimendu heldu bat izan zen, garai hartan Nafarroan sortu ziren beste kezka batzuekin lotu zena. Mugimendu multzo bat zen, elkarrizketaren alde egiten zuena eta oposizioaren aurka. Itoizen kasuan, "urtegiari ez, alternatiba sozial bati bai" lelopean, irtenbide sozialaren aldeko mugimendu sozialek indarra hartu zuten (Estebaranz, 2008, or. 114). (Ikusi 2.Irudia).

1990eko hamarkadan, eta gai horretan zituen gizarte-gatazkak Autobiaren Aurkako Koordinakundeak hasitako hainbat sektoreren mobilizazioak markatu zituen, eta zonaldeak nazkatuta zeudela eta gizarte-kontzientziaren froga izan ziren. Itoizentzat, proiektua onartzen hasi ziren urteak izan ziren baita. Garai politikoaren aurkako lasterketa izan zen bereziki. Urte hauetako mugimenduaren ezaugarri nagusia tokiko izaera legalista izan zen, tokiko administrazio-bettoa eta ingurumen babesa eztabaida politikoarekin amaitzeko nahikoa argudio izango zela espero zuten (Estebaranz, 2008, or. 114).

Baina koordinatzailea gidatzen zuten argudio protezionistak eta juridikoak ez ziren nahiko izan hasiera batean kezka ekologikoa pizteko. Oposizio politikoa bera ez zen nahikoa izan hasiera batean. Izan ere, kanpotik mugimendua pulstu politiko gisa ikusten zen tokiko administrazioen eta eskuin alderdien artean, borroka sozialdemokrata balitz bezala mugimenduaren partetik. Baina koordinakundearen helburuak haratago zihoazen, ondarearen eta bizimodu tradizionalen defentsa zuten xede (Estebaranz, 2008, or. 117).

Itoizko gatazka ez zen bakarrik ingurumenekoa izan azken batean, kutsu demokratikoa izan zen baita. Proiektua haranaren baimenik gabe egin zen. Mikel Elorzak hala azaldu zuen Egunkarian. Gurreak zioenez, auzitegiak proiektua bertan behera utziko balu ere, gobernuak beste bat bilatuko luke, beste presa bat eraiki arte. Mikelek dioen bezala *"Jo ta ke, urtegia amaitu arte"*. Berak zioenez, justiziaz eta demokraziaz hitz egin da, baina ez du inon ikusten. Herriari galdetu izan balitzaio honek

³⁰ Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak

³¹ Ekologismoa eta HBBE bezalako eremuen defentsan datza.

ezezko biribila emango zion gobernuari. Kasurik egingo ez balitzaio bailarako borondatearen kontra joatea litzateke, oso demokratikoa ez den zerbait izanik³².

Bestalde, mugimendua bera heterogeneoa zen zentzu sozialean. Inguruko gazteak kaleetan manifestazioak egitearen edo jarduerak egitearen alde zeuden, baita boikotak egitearen edo obretako makineriara kateatzearen alde ere, proiektua oztopatzea bilatuz (Estebaranz, 2008, or. 117). Baina ekintza mota horiek bertan behera geratu ziren Koordinakundean. Kontzientziazio-ekintzak egitearen alde zeuden, hala nola kanpaldiak (1994), mendi-ibilbideak edo bizikleta-martxak.

1992an Rio de Janeiron Lurraren Gailurra ospatu zen, inflexio-puntu bat izan zen. Neoliberalismoak edo globalizazio kapitalistak Lurraren bizitzan zituen eraginak zehaztu ziren lehen hitzaldietako bat izan zen, horrela sortu zen konferentzia horretatik "garapen iraunkorra" terminoa. Konferentzia horrek ingurumenaren kezka administrazioan txertatu zuen, eta, horri esker, administrazioek eta talde ekologista politikoek eztabaida hasi zuten. Une horretan, egiturazko hobekuntzak gertatu ziren, herritarren kontzientziazio ekologikoa ahalbidetuz (Estebaranz, 2008, or. 121).

Itoizen kasuan, 1993an hasi ziren obrak; urte berdinean, Auzitegi Gorenera eraman zen kasua, eta koordinatzaileak legez kanpokotzat jo zuen auzitegian baina 1995 arte ez da kasua itxiko. Bestalde, zonako mobilizazio handiak bultzatu ziren, eta 10.000 pertsona baino gehiago eraman zituzten Iruñera obren aurka (Estebaranz, 2008, or. 124). Une horretan iritzi publikoa koordinakundearen alde agertu zen, mobilizazioaren bidea hartuz.

Alderdi politikoek bi jarrera izan zituzten urtegiaren defentsan, eskuineko nafarrak ureztatzearen eta uraren beharra defendatzen zuen hiriguneetarako, nahiz eta nekazaritza politikaren beraren aurkakoak izan. Nafarroako Ubidea izango da eskuinak bultzatuko lukeen proiektu nagusietako bat, Nafarroako garapenaren gailurra bezala aurkeztuz. Alderdi sozialistek, berriz, elkartasun-diskurtsoa erabiltzen zuten, hau da, guztion onerako zen Plan Hidrologiko nazionala zen (Estebaranz, 2008, or. 124).

Rafael Gurreak, UPNkoa, gobernuaren bozeramaile gisa defendatu zuen Erriberak proiektu hori behar zuela, Nafarroako hiriburua bezala. Nahiz eta gero koordinakundeko taldeen azterketa teknikoek arrazoi hori erabat ezeztatuko izana 1993 eta 1994an. Diario de Navarra-n defendatu zuen ez zela inoren kontrako ekintza bat, baina proiektuak lekuz aldatu zituen 100 familia ez zuten iritzi bera

³² Elorza, M. (1997 azaroak 8). Lehorreko zurrunbiloak. *Egunkaria*, or.3.

izan. Hala ere, UPNk lehentasuna eman zien Erriberako biztanleei, beren etxeak uztera behartuak izan zirenei baino³³.

Horren aurrean, Koordinakundeak bere diskurtso ekologista indartu zuen, erreserbak, HBBE eta landa-bizimodua defendatuz. Une honetan, diskurtso horren aldeko talde zientifikoek 93ko edo 94ko txostena egin zituzten, besteak beste (Estebaranz, 2008, or. 125).

Urte berean, Nafarroako Foru Erkidegoa urteko aurrekontuak argitaratu zituenean argi geratu zen obrak izan behar zituen kostuak bikoiztu egin zirela, guztiz gainditu ziren eta obra ia hasi gabe zegoen (Estebaranz, 2008, or. 124).

Bestetik, Irurtzun-Andoaingo autobia bezalako kontuekin iruzurrezko negozio batzuk azalatu ziren, eta, horren ondorioz, denen onerako erabilitako argudioak administrazioaren partetik zalantzazkotzat jo ziren. Gainera, zonaldearen militarizazioak, Guardia Zibilen partetik eraikuntza ahalbidetzeko, mobilizazio gehiago bultzatu besterik ez zuen egin. Euskal Herrian azpiegitura handien hainbat proiektu eman ziren 1995an, eta horiek oposizio mugimenduak lortu zituzten. Argi utzi zuten demanda ekologikoak kritikatzeko unea zela, diskurtsoa eraldatzeko unea. AHTa edo mugan gasbide bat sortzea bezalako gaiek hainbat talde mugiarazi zituzten, eta talde horiek beren interes berak partekatzen zituzten beste mugimendu batzuekin eta natura-ondarearen babesarekin bat egin zuten. Une horretan sortu zen Itoitzekiko Solidarioak taldea, 1995ean (Estebaranz, 2008, or. 127).

Itoizekiko Solidarioak paradigma antidesarrollista eta nahasi batean gertatzen ziren erresistentzien mugimendu berrietatik abiatuta sortu zen mugimendu gazte bat. Beste ekintza mota batzuk bultzatzen zituzten, herri okupazioak adibidez honela obrak geldiaraztea bilatzen zuten (Estebaranz, 2008, or. 128). Talde antimilitarista bat zen, non beste mugimenduetako hainbat pertsona elkartu eta ezarritako ordenaren aurka borrokatzen zuten, intsumisoak bezala (Estebaranz, 2008, or. 130). Beraz, hainbat gaztek osatutako taldea zen, batez ere autonomiaren eta antikapitalismoaren alde egiten zutenak. Koordinakundeak hartutako bidea gutxiegitzat jotzen zuen taldea zen, legezko bideak ez zituen esperotako fruituak hartu. Beste bide baten bila zebiltzanez, kaleko oposizioaren alde egin zuten batez ere, ekintza zuzenen alde eginez (Estebaranz, 2008, or. 131).

³³ *Diario de Navarra*ren editoriala, 1994ko abenduaren 1a. Satisfacción de los partidos mayoritarios al archivar la queja contra Itoiz. *Diario de Navarra*, or. 80.

Bestalde, gazte hauek "neo-rural" izenekoaren parte ziren eta Itoizko herriak okupatzea erabaki zuten, Lekabe kasu³⁴, non landa-bizimodua defendatzen zuten. Horrelako taldeek harrera hobea izan zuten Itoizko Solidarioekin, desobedientzia zibilean oinarritutako sustraiengatik (Estebaranz, 2008, or. 131).

Solidarioen taldeei Iruñeko gazte okupatuen talde bat ere batu zitzairen, taldean ekimen garaikide berriak sartu zituzten. Hainbat sentsibilizazio horien ondorioz, hainbat taldek parte hartu zuten interes eta adinetan, ondorioz, Itoizekiko Solidarioak ziren. Taldea indarkeriarik gabeko ekintza zuzen batzuk egiten hasi zen, hala nola eraikinen ateetan kateatzea, teilatuetara edo beste esparru batzuetara igotzea, ekintza jendaurrean ezagutarazteko. Itoitzen erakundea makineriara kateatzen hasi zen, edo azpiegituretatik zintzilikatzen, obrak geldiarazteko. Esate baterako, 1998an metal zatiak sartu zituzten makineriako ihes-hodietan, eta horiek baliogabetu egin zituzten Nagoreko errepedeko obrak geldiarazteko, "errepiderik gabe ez dago presarik" leloa aldarrikatuz (Estebaranz, 2008, or. 135).

Solidarioek Itoizarekin egin zituzten ekintzetako batzuk mehatxutzat edo arriskutzat hartu zituzten koordinakundeak eta lokalek. Beldur ziren beren ekintzak, indarkeriarik gabekoak izan arren, iritzi publikora itzuliko ote zen mugimenduaren aurka, erradikalak bezala definituz. Baina horrelako ekintza "ikusgarrien" ondorioz, aldizkariak eta Nafarroatik eta Euskaditik kanpoko beste talde batzuek Itoiz buruzko interesa piztu zuten. Porblematikaren mugak ireki zituzten, *Greenpeace* bezalako talde ekologista handien arreta bereganatuz (Estebaranz, 2008, or. 130). Adibidez; 1995ean interes komun horiek gauzatzeko, COAGRET taldea sortu zen: Urtegi Handiek eta Isuraldatzeek kaltetukoen Koordinakundea. Bertan, Itoiz, Esa, Riaño, Omaña eta Ebroko Ur-eramateen Aurkako Koordinakunde handia zeuden, *Greenpeace* eta CODA (Natura Babesteko Erakundeen Koordinatzailea) aipatutakoez gain (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 64).

Baina erakundearen aldarrikapenak ez zituen gobernuaren eraikitze asmoak geldiarazi, hau bere asmoa indartzen saiatu baitzen. Eskuin foralistak hauteskundeak erabili zituen, eraikuntzaren alde zeuden hautagaiak boterean jartzeko. Nahiz eta Sanzen idealek ez zuten lortu presaren zorra estaltzea, erabat gainditua baitzuen hasierako kostu hirukoiztera egin baitzuen (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 134).

Ondorioz, manifestazioak jendetsuak bihurtu ziren, 15000 pertsona baino gehiago biltzea Nafarroako hiriburuan lortu zuten (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 135).

³⁴ Lakabe 1980tik okupatua egon zen horrelako taldeen partetik. Hauek horrelako ekintzen oinarriak eraiki zituzten. (Estebaranz, 2008, or. 131)

Itoizko urtegiaren gatazkaren diskurtso analisia

Azkenean, 1995ean, Auzitegi Nazionala presa legez kanpokotzat joko zuela zirudien, baina fidantza eskuraezin bat eskatu zuten obrak prozesua bitartean geldiarazteko. Ezinezkoa zen mugimenduarentzat horrelako dirutza eskuratzea (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 136).

Hala ere, une garrantzitsua izan zen, non iritzi publikoak Itoizen alde egin zuen. Gainera herrien ondare balioaren azterketak egin ziren, adibidez: Maria Garcia Gainzaren Nafarroako Katalogo Monumentala herrien ondare ezberdinak azaldu ziren. Interes artistiko eta historikoa defentsa diskurtsoan indarra lortu zuen, okupa taldeen eskutik herriak hartu ziren hauen suntsiketa saihesteko. Inguru antikapitalista eta kontrakulturaleko gazte askok Arizkuren, Rala eta Artanga bezalako herriak okupatu zituzten (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 136).

Itoizen norabidea aldatu zuen uneetako bat eta arreta gehien jaso zuenetako bat 1996ko kable mozketan izan zen, hau urte betez geldiarazi zituen obrak. Itoizekin Solidarioak taldeko 8 kide apirilaren 6ko gauean hormigoia banatzeko balio zuten zortzi kable zerratu zituzten. "Indarkeria txikiko" ekintza zen, eta desobedientzia zibilean oinarritzen zena, presio sinboliko txiki bat egiten baitzuen (Beaumont J. , Beaumont, Arrojo, & Bernal, 1997, or. 137). Ekitaldi horretatik aurrera, alderdiek eta prentsak Itoizko mugimendu osoa kriminalizatu zuten, eta, horren ondorioz, mugimendua erabat zatitu zen, eta, talde ekologistek eta talde politikoen batzuen babes guztia galdu zuten (Ikusi 3.lrudia).

Greenpeacek solidarioen ekintzak gaitzetsi zituen, Koordinakundeak, nahiz eta jakin obren oposizioaren iritzia ez zela iritsi ekintza guztiz ulertzera, azkenean, egoera ekintza ekologistatzat jo zuen, batez ere ez zelako bortitza, kalte pertsonalik ez zegoelako materialak baino ez, urtebetez obra geldiaraztea lortu zuten (Casado da Rocha & Antonio Pérez, 1996, or. 58). Mozketa ekintza zuzeneko ikono bihurtu zen, hainbeste markatu zuen beste aldarrikapenetan umorez "Rota flex, irabazi arte" esaldia erabiltzen hasi ziren (Estebaranz, 2008, or. 139).

Baina komunikabideen aldetik, ekintzak ñabardura bortitz bat izan zuen, eta "ekologistaz mozorrotutako" terminoekin mozorrotu zen, mugimendua terroristatzat hartuta. Ñabardura horiekin bete zen egoera, eta babesaren eta koordinatzailearen beraren arteko haustura gertatu zen. Baina Casado da Rochak Itoizko sabotageatzaileek defendatzen duten bezala, ez zuten armarik hartu, arriskua izan behar ez bazuten ere, polizari bere burua entregatu zuten ekitaldiaren ondoren, geldiarazteko eta indarkeriarik gabeko ekintza bat zelako. Mugimenduaren kontrako eta aldizkako aldetik, obren biktimizazioa gertatu zen (Estebaranz, 2008, or. 139).

Horrelako edozein ekintza terrorismoarekin lotzea da Casado da Rochak eta Antonio Perdesek "Euskal Herriaren sindromea" gisa definitzen dutena (Casado da Rocha & Antonio Pérez, 1996, or. 58). Eremu horretan indarkeriazko edozein ekintza *a priori* terrorismoarekin lotzen dela esan nahi du, kasu honetan ETArekin. Gainera, eremu ekologistan, Lemoiz bezalako egoeren aurrekariak azpiko beldur hura markatu besterik ez zuten egin (Estebaranz, 2008, or. 144).

Aktibismo ekologikoak gatazka bat sortzen du baliabide naturalak esploratzen dituzten lagunen interesekin; kasu honetan, gobernuaren politiken eta naturari buruzko politiken aurkako ekintza bat zen. Oposizioa zen, inflexio-puntua artasmoaren aurrean, eta legezko bideak fruiturik ematen ez zuela ikusita, indarkeriarik gabeko ekintza zuzenera igaro zen. Baina azkenean espero gabeko emaitzak lortu zituzten. Nahiz eta aktoreak une batean ere ez ziren ekintza horretaz damutu (Estebaranz, 2008, or. 137).

Nahiz eta kableen mozketak deigarria izan, Itoiz nazioartera zabaldu, mugetatik atera eta beste puntu batzuetan ezagutzera eman zen ekintza bat izan zen (ikus 4. Irudia). Itoizko solidarioei egin zitzaien elkarrizketa batean Martxelo Diazek (Ibai Ederra, Urko Hernandez, Peio Lusarreta eta Julio Villanueva) Gara-rako egindakoan hasieratik izan zuten asmoa ekintza zuzena zen eta delitu larria ez izatea. Hain zuzen ere, prentsari iragarri zioten ekitaldia, eta deklarazioa egin zioten prentsari. Sabotaje batekin jarraitu nahi zuten, baina indarkeria minimoarekin (Estebaranz, 2008, or. 142).

